

Nola iritsi heldutasunera *flowa* galdu gabe

Euskal hip hoparen urtea izango ote da 2015a azkenik? Eskaintza falta delako behintzat ez da izango, “euskaraz ez dago rap diskorik” esatea aspalditik debekatuta dago. Aurten publikatu diren bi diskok eta argitaratzear den beste batek merezi dute entzunaldia.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |



Norte Apache (ezkerrean) eta Kodigo Norte, euskal hip hoparen iparra seinalatzen ari diren bi talde. 2015ean disko bana ekarri dute.

HORTIK AUERRERA, zaila da iragarpenekin asmatzea eta, errealistak izanda, kosta egiten da sinestea rockera hain lerratua dagoen entzuleria euskaldunak kopuru handi samarretan aukerarik emango dionik errimaz eta samplez osatutako koktel bati.

Nolanahi: urtarrilean eskuratu ahal izan genituen Kodigo Norteren *Eutsi* eta Suaia eta Lahaineren *Herrima*. Izaera arrunt desberdinekoak biak: lehenbizikoak nagusiki reggae sustraiekin uztartzen du hip hopa, diskurtso optimista, tarteka umoretsu eta tarteka introspektiboarekin, Gasteizko *establishment*-ari egurra emateaz ahaztu gabe, noski. Bestelakoa da *Herrima*, oinarrietan elektronikoagoa eta hizpideetan militantea argi eta garbi —diskoa baino lehen ere ezagutzen genuen *Greba-lariak aske!* da horren erakusle argiena—.

Ez gara hasiberriei buruz ari: Kodigo Nortek hamar urte daramatza martxan; eta talde horretako kide den Gorka Suaia eszenatokian ederki zailduta dagoen 121 Krew talde barakaldarreko Endika Lahaine du lagun *Herriman*. Belaunaldi berekotzat jo ditzakegu: Selektah Kolektiboak inguruotan zabaldu zuen zirriktuari jarraitu zioten musikariak dira.

Hazi berriak

Eta bai, egia da, euskaraz ari diren hip hop taldeek ez dute lortu oraindik bazterreko izateari uztea, baina izaera propio bat sortu dutela esan daiteke behintzat. Hori gabe ezin baita ulertu beste talde bateko kideek, Norte Apache bizkaitarrek, maiatzean aurreratu duten *Hazi berriak* kanta. Hurrengo diskoaren aurre-rapen gisa aurkeztu dute, baina gehiago ere bada: azken hamarkada luzean egindako hip hop euskaldunaren aldarrikapena dirudi, urteotan egindako kanten erreferentzietatik abesti amaierako keinu umoretsura. Nork kolaboratu duen begiratu eta ustea baieztatzen da: MAKeko Jon Eyherabide eta Selektah-ko Manugaitz aspaldiko partez entzuteko aukera eskaintzen du abestiak.

Auto-erreferentziarako joera hori ez da berria, baina kasu honetan halako heldutasun bat iradokitzen du. Euskarazko rapak jada ez du esan beharrik noizbait posible izango dela. Badago, hortxe, esku-eskura. Artikulu honetan aipatutako taldeen diskoak doan deskarga daitezke. Jende gehixeagok horixe egitea eta aukera bat ematea baino ez da falta. ■